

# ADIERAZLEAK

## PROZESU EZBERDINETAN ERABILITAKO MATERIALA (LIBURUAK, ARBELA, JOLASAK...)

Aztertu zein baliabide, material edo tresna den lagungarriena hizkuntzaren erabilera ustiatzeko

- Testu-liburuko ariketak
- Irudiak
- Ikus-entzunezkoak
- Ikasleek etxetik ekarritako materiala
- Abestiak
- Arbela
- Ikasleak adibide moduan baliatzea
- Jolasak

### ALDEZ AURRETIK PRESTATU

**Aukeratzan ditugun tresnen bitartez, HITZEZKO ZER egitea nahiko genuke?  
Zein erabiltzea komeni zaizu eta zein momentutan?  
Zertarako?**

- Arbelean dagoen zerbait azaltzeko eskatu.
- Azalpena emateko arbela baliatu.
- Arbelean dagoen zerbait irakurri.
- Ariketak egin eta ebazpena idatziz edota ahoz eman.
- Ondorio bat atera.
- Liburuko jarduera eztabaidatu eta adostasunera iritsi.
- Esku-orrian agertzen den irudi baten deskripzioa egin.
- Jolaserako materiala aurkeztu.
- Zerbait egiteko prozeduraren urratsak azaldu.
- Jokoaren arauak azaldu.
- Elkarrekin eztabaidatu.
- Solasaldi espontaneo eta informalak sortu.
- Ikus-entzunezkoak aztertu alderdi linguistikotik.

## ALDEZ AURRETIK PRESTATU

### Eta ikasleen hizkuntza garapenean laguntzeko, zein jarraibide edo aholku eman dezakezu?

- Hitzeko alderdia **bihurtu ikasleentzat langai. Honakoak antzekoak ahoz eskatu**: “irudiak deskribatzerakoan zer hartuko dugu kontuan?” “iritzia ematerakoan XXX formulez gain, zein gehiago erabiliko dugu?”; “zein hitz tekniko dituzue jarduera honetan? Horiek erabiliko dituzue...”.

- Ahoz eskatu den hori **nonbait jaso**, ikasleek argi ikusteko moduan: arbelean, horman, ikasleei eskura emanda...

- **Erantzunak luzeak** izan daitezzen eskatu, egitura osoak.

- Eman (idatziz edo ahoz) **adibideak** (“ezkerraldean dagoen txoria handia da, eskuinaldean dagoena, ALDIZ, XXXX...”).

- **Parte hartzeko arauak finkatu**: eskuak altxatuta, lehenik taldetan eta gero taldeko ordezkariak, zerrendaren arabera, izendatuz, borondatezko partaideak proposatuz, txandakatuz... ahalegindu partaideak ezberdinak izan daitezzen.

**Ikasleen ahozko ekoizpena ebaluatzeko aukerak identifikatu daitezke. Adibidez?**